

## 8 ONDORIO NAGUSIAK

### 1. Atala: GIPUZKOAKO GAZTERIAREN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO NAGUSIAK: ZEHARKAKO DATU ESTATISTIKOEN AZTERKETA

|                           |  |
|---------------------------|--|
| <p><b>POPULAZIOA</b></p>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoan 1996. urtean 15-29 urte bitarteko 160.935 gazte daude, lurralde honen populazioaren %23,8. Hauen ia erdiak, Donostialdean bizi dira.</li> <li>• 1991. eta 1996. urteko zentsuen arteko hazkunde tasa negatiboa izan da, hau da gazte populazioak behera egin du, bai Gipuzkoan baita ia eskualde guztietan ere (hazkunde tasa positiboa duen eskualde bakarra Bidasoa Beherea da).</li> <li>• Gazteen %51,5 gizonezkoek osatzen dute, eta %48,8 emakumezkoek. Adinari dagokionez, %29,4k 15-19 urte bitartean ditu, %36,1ek 20-24 bitartean eta %34,5ek 25 urtetik gora.</li> <li>• EUSTAT erakundearen proiektzio baten arabera, 2010. urtean, 94.050 gazte inguru egongo dira Gipuzkoan.</li> </ul> |
| <p><b>HEZKUNTZA</b></p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen erdiak pasatxok bigarren mailako ikasketak ditu, eta heren batek lehen mailakoak. Hirugarren mailako ikasketak ditu gazteen %10k.</li> <li>• Emakumezkoen ikasketa maila zertxobait altuagoa da gizonezkoena baino.</li> </ul>  |
| <p><b>ENPLEGUA</b></p>    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako 16-29 urte bitarteko gazteen jarduera-tasa %55aren inguruan kokatzen da: %14koa da 16-19 urtekoentzat, 20-24 urte bitartekoena %54,7 eta 25 urtetik gorakoena %85,8.</li> <li>• Gizonezkoen jarduera tasa emakumezkoena baino altuagoa da eskualde guztietan.</li> </ul>   |
| <p><b>KONPARAKETA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEn gazte populazioak ere behera egin du bost urte hauetan, baina proportzionalki Gipuzkoan baino zertxobait gutxiago. Estatuan aldiz, bilakaera positiboa izan da eta tasa txikiarekin izan arren, gazte kopurua hazi egin da.</li> <li>• Gazteen eskolatzet-mailari dagokionez, azpimarra daitezke gazte gipuzkoarren eskolatzet-maila EAEena baino zertxobait altuagoa dela.</li> <li>• 16-29 urte bitarteko gazte gipuzkoarren jarduera tasa EAEko gazteena eta Estatuko gazteena baino zertxobait altuagoa da</li> </ul>  |

## 2. Atala: GAZTEEN SOSLAIA

### ONDORIO OROKORRAK

- Gazte gipuzkoarren **emantzipatze maila** baxua dela esan daiteke: izan ere 15-29 urte bitarteko sei gazetetik bakarra emantzipatuta dago, hau da, sei gazetetik bost oraindik bere sendiaren diru-sarrerekin edo gurasoen etxean bizi dira.
- Emantzipatzeko lana izatea ia beharrezkoa dela esan daiteke, baina ez dela nahikoa. Izan ere, emantzipatutako gazteen %82 lanean ari da, baina lanean ari direnen %27 besterik ez dago emantzipatuta. Lan-baldintzak ere eragina dute emantzipatze mailan, lan egonkorra duten gazteen emantzipatze-maila altuagoa baita egoera ez-egonkorrean daudenena baino.
- Ia gazte guztiak ezkongabeak dira, bikotearekin (ezkonduta edo ezkondu gabe) bizi direnak %10aren inguruan kokatzen direlarik.
- Orokorrean Gipuzkoako gazteek **ikasketa maila** altua azaltzen dutela esan daiteke. Ia desagertu egin dira lehen mailakoak baino ikasketa maila baxuagoa duten gazteak, eta adierazgarriak dira ikasketa unibertsitarioak (maila ertainekoak nahiz goi-mailakoak) amaituta dituzten gazteen proportzioak.
- Okupazioa: Gazte multzo handi bat oraindik ikasketa prozesuan murgilduta badago ere, gazteen ia erdia lanean ari da, hauen erdia -gazteen laurdena-aldi baterako kontratuarekin bada ere.
- Lan merkatura inkorporatu diren gazteen artean oso adierazgarria da ikasketa profesionalak amaitu dituzten gazteen ehunekoa. Zehazki soldatapean lanean ari direnak aztertuz, ikasketa profesionalak eta goi mailako ikasketa ertainak egin dituztenak destakutzen dira. Aitzitik, langabezia aurkitzen direnen artean, goi-mailako ikasketadunak.
- Gipuzkoako hiru gazetetik bi **euskaraz** hitz egiteko gai dira, eta hauen erdiak baino gehiagok -gazte guztien %35ek- euskaraz nagusiki hitz egin ohi du bere etxekoekin eta lagunekin.
- Euskaraz ongien moldatzen diren gazteen artean adierazgarriena ikasleen presentzia nabarmena da. Aldiz, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten gazteen artean lan merkaturan inkorporatutako biztanle aktiboak nabarmentzen dira.

## 2. Atala: GAZTEEN SOSLAIA

|                     |   |
|---------------------|---|
| <p><b>SEXUA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezkoen emantzipatze maila, gizonekoena baino zertxobait altuagoa da, bost emakumezkoetatik bat bere diru-sarrerekin eta gurasoen etxetik kanpo bizi baita. Aldaera honen atzean bi hipotesi egon daitezke: emakumezkoak, beraiek baino zaharragoak diren bikote-kideak izatea (ikerketan sartu ez direnak), edo emakumezkoak gurasoen etxetik kanpo bizitzeko erabakia gizonzkoek baino errazago hartzea.</li> <li>• Emakumezkoen ikasketa maila altuagoa da gizonekoena baino; honela hiru emakumezkoetatik ia batek unibertsitate ikasketak amaituta ditu, eta aldiz bost gizonzkoetatik batek. Gizonzkoek aldiz, ikasketa profesionalak, proportzio handiago batean aukeratzen dituzte.</li> <li>• Okupazio nagusiari dagokionez, emakumezkoek lan merkatuan sartzeko oztopo gehiago aurkitzen dituztela antzematen da, proportzionalki ia 10 puntu baxuagoa baita lanean ari den emakumezkoen ehuneko eta aldiz ia 6 puntu gehiago langabezian daudenena.</li> <li>• Euskararen ezagupenari dagokionez, sexuak ez dirudi eragin handia duenik euskararen ezagupenean, emakumezkoen artean euskararen ezagupen maila altuxeagoa bada ere. Erabilpenari dagokionez, eta etxeko erabileran desberdintasunik ez dagoen arren, lagun arteko harremanetan emakumezkoek euskaraz hitz egiteko ohitura gehiago dutela ikus daiteke.</li> </ul> |
| <p><b>ADINA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Logikoa den bezala, gazteen soslaiaz hitz egiteko garaian adinak berebiziko garrantzia du. Honela, eta emantzipatze mailari dagokionez, adibidez, 23 urtetik gorakoen artean %26ra igotzen da bere diru-iturriz eta gurasoen etxetik kanpo bizi den gazteen proportzioa.</li> <li>• Ikasketa mailari dagokionez, 23 urtetik beherakoen ikasketa maila baloratzea zaila denez (gehien-gehienak oraindik ikasketa-prozesuan murgilduta baitaude), hortik gorakoetan zentratuko gara: hauen artean esan ikasketa maila altua lortzen dutela Gipuzkoako gazteek, %41ek goi-mailako ikasketak amaituta baititu eta beste %46k bigarren mailakoak edo ikasketa profesionalak.</li> <li>• Euskaraz egiteko gaitasuna aldiz altuagoa dute 23 urtetik behekoek, eta adin horretatik gorakoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute ere euskaraz etxean edo lagunekin.</li> <li>• Euskararen ezagupena eta erabileraren artean, orokorrean ia 25 puntuko aldea bada ere, 15-22 urte bitarteko gazteen artean aldea ia 38 puntukoa da; beraz, gaztetxoek 23 urtetik gorakoek baino euskararekiko fideltasun baxuagoa erakusten dute.</li> </ul>   |

## 2. Atala: GAZTEEN SOSLAIA

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>INGURUNEA</b>             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emantzipatze maila zer edo zer altuagoa da Donostialdeko gazteen artean, aldea handia ez den arren.</li> <li>• Ikasketa mailan eragina du gaztea bizi den inguruneak edo herriaren tamaina erabili dugun bezalako aldagai batek suposatzen duen hiri-ingurune edo landa-ingurune batean bizitzeak. Izan ere, proportzionalki bizilekua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta altuagoa da unibertsitate ikasketak dituzten gazteen ehunekoa: Donostian unibertsitate ikasketak amaituta dituzten gazteen ehunekoak, 10.000 biztanletik beherako herrietan bizi diren gazteen ehunekoa ia bikoizten duelarik. Aitzitik, herri txikietan altuagoa da ikasketa profesionalak amaituta dituzten gazteen ehunekoa, eta batik bat lehen mailako ikasketak soilik amaituta dituztenena.</li> <li>• Ikasketa maila desberdina izateak, neurri batean behintzat gazteen okupazio nagusia desberdina izatea dakar. Honela, Gipuzkoako herri handiagoetan, eta batik bat Donostian, herri txikiagoetan baino altuagoa da nagusiki ikasten ari diren gazteen ehunekoa, eta alderantziz, proportzionalki lanean ari diren gazteak gehiago dira udalherri txikietan.</li> <li>• Euskararen ezagupen maila ere gaztea bizi den hiri-ingurune edo landa-ingurune batean bizitzeak ere eragiten du, gaztea bizi den udalherriaren tamaina zenbat eta altuagoa orduan eta baxuagoa baita euskaraz hitz egiteko gai diren gazteen ehunekoa. Herri txikietan hamar gaztetik zortzik baino gehiagok hitz egiten du euskaraz; Donostian erdiak pasatxok.</li> <li>• Euskararen ezagupen mailak noski hizkuntzaren erabilera maila bai etxekoekin, baita lagunekin ere baldintzatzen du: tamaina txikiagoko herritan bostetik ia hiruk erabiltzen du nagusiki euskaraz, tamaina ertaineko herrietan bizi direnetan hirutik batek, eta Donostian zazpitik batek.</li> <li>• Euskararen ezagupena eta erabileraren arteko jauzia Donostian gainontzeko herritan baino nabarmen altuagoa da, euskaraz hitz egiten jakin eta erabilera normalizatua agertzen dutenen artean ia 37 puntuko aldea dagoelarik.</li> </ul> |
| <b>BILAKAERA KONPARAKETA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako gazteen emantzipatze mailak behera egin du zertxobait azken 4 urtetan (2,5 puntu), gazteek beren diru-sarrerarekin eta gurasoen etxetik kanpo bizitzeko dituzten zailtasunak murrizten joan ordez, mantendu eta kasuren batean areagotu ere egin direnaren seinale.</li> <li>• Ikasketa mailak gora egin du ere 1996tik hona, unibertsitate ikasketak amaituta dituzten gazteen ehunekoa 7 puntuz igo delarik.</li> <li>• Gazteen okupazio edo jarduera nagusia nabarmen aldatu da: langabezia %19tik %6ra jaitsi da gazteen artean, eta honek ekarri du lanean ari diren gazteen ehunekoa 5 puntuz igozea. Beste hainbeste igo da ere nagusiki ikasten ari den gazteen ehunekoa.</li> <li>• Gipuzkoako gazteen euskararen ezagupena, EAEko gazteena baino 18 puntu altuagoa da: Gipuzkoan hirutik bi euskaraz hitz egiteko gai dira, EAEn ez dira erdira iristen.</li> </ul>   |

### 3. Atala: ESPARRU PERTSONAL ETA FAMILIARRA

|                                |   |
|--------------------------------|---|
| <p><b>ONDORIO OROKORRA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Orokorrean esan daiteke 15:29 urte bitarteko gazte gipuzkoarrak gustura daudela bai bere bizimoduarekin eta baita familiaratean dituzten komunikazio maila eta harremanekin ere. Horrek ez du esan nahi gazteek beren kontura bizitzea nahiago ez luketenik, eta argi geratzen da aukera izanez gero gurasoena ez den beste etxe batean bizitzea nahiago luketela.</li> <li>• Gazteen erdiak bere familiaren egoera ekonomikoa ona dela pertzibitzen badu ere, ia beste hainbestek egoera hori erdipurdikoa besterik ez dela irizten dio.</li> <li>• Gazteen diru iturri nagusia, lanean ari direnen kasuan lana da, eta lanean ari ez direnena familia edo biak, zentzu zorrotzean lanean ari ez diren zenbait gazte ere inoiz lanik edo aktibitatearik egin baitu diruaren truke. Batez beste, gazteek 73.000 pta. inguru erabiltzen dituzte hilean.</li> <li>• Emantzipatzeko adinik desiragarriena 24 urteren inguruan kokatzen dute, errealitatean gero beraiek ia 27 urte bete arte gurasoen etxean egongo direla uste duten arren.</li> </ul> |
| <p><b>SEXUA</b></p>            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezko eta gizonezkoen poztasun-asebete maila orokorra oso antzekoa da, bere bizimoduarekin oso gustura dauden emakumezkoak zertxobait gehiago diren arren. Oso antzekoa dira baita ere familiaratean dituzten komunikazio maila eta harremanekin gustura daudenen ehunekoak.</li> <li>• Beren bizitza garatzen den modua aukeratu eta kontrolatzeko askatasun maila berbera sentitzen badute ere, gizonezkoek gurasoengandik kontrol maila zertxobait altuagoa pertzibitzen dute emakumezkoek baino.</li> <li>• Gazteen diru iturri nagusia, gazteen okupazioak baldintzatzen du: honela, lanean ari diren gizonezkoak gehiago direnez, gehiago dira ere normalean darabilten dirua lanetik jasotzen duten gizonezkoak, eta aldiz gehiago familiarengatik edo bietatik dirua jasotzen duten emakumezkoen proportzioa. Hau dela eta, ziur aski, ia 14.000 pta gehiago erabiltzen dituzte hilean gizonezkoek, emakumezkoek baino.</li> </ul>  |

### 3. Atala: ESPARRU PERTSONAL ETA FAMILIARRA

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>ADINA</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezko eta gizonen poztasun-asebete maila orokorra oso antzekoa da, bere bizimoduarekin oso gustura dauden emakumezkoak zertxobait gehiago diren arren. Oso antzekoa dira baita ere familiaratean dituzten komunikazio maila eta harremanekin gustura daudenen ehunekoak.</li> <li>• Beren bizitza garatzen den modua aukeratu eta kontrolatzeko askatasun maila berbera sentitzen badute ere, gizonen gurasoengandik kontrol maila zertxobait altuagoa pertzibitzen dute emakumezkoek baino.</li> <li>• Gazteen diru iturri nagusia, gazteen okupazioak baldintzatzen du: honela, lanean ari diren gizonen gehiago direnez, gehiago dira ere normalean darabilten dirua lanetik jasotzen duten gizonen, eta aldiz gehiago familiarrengatik edo bietatik dirua jasotzen duten emakumezkoen proportzioa. Hau dela eta, ziur aski, ia 14.000 pta gehiago erabiltzen dituzte hilean gizonen, emakumezkoek baino.</li> </ul>   |
| <b>INGURUNEA</b>             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azterten ari garen ingurune desberdinetako gazteek antzeko poztasun-asebete maila dute bere egungo bizimoduarekin, eta baita familiaratean dituzten komunikazio maila eta harremanekin ere (bi kasutan herri txikietako artean puntuaketa 0,2 hamarreko altuagoa bada ere). Aldiz, bere bizitza garatzen den modua aukeratu eta kontrolatzeko Donostiarrek askatasun maila zer edo zer altuagoa sentitzen dute eta herri txikietakoek gurasoengandik kontrol maila baxuagoa.</li> <li>• Baina batzuk zein besteek proportzio bertsuan aukeratuko lukete, beren esku balego, beren gurasoena ez den etxe batean bizitzea.</li> <li>• Gazteek darabilten dirua gazteen okupazioarekin lotuta dago, eta ikusi dugunez, herri txikietako gazteen artean altuagoa da lanean ari den gazteen proportzioa. Honekin lotuta, altuagoa da herri hauetan darabilten dirua bere lanetik datorrela dion gazteen ehunekoak, eta altuagoa da baita ere maneiatzen duten diru kopurua (18.000 pta.ko aldea dago).</li> </ul> |
| <b>BILAKAERA KONPARAKETA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azken 4 urtetan gazteek bere bizimoduarekin eta familiarrengatik komunikazio maila eta harremanekin azaltzen duen poztasun-asebete maila bere horretan mantendu dira, aldaketarik gabe. Ez dirudi denboran erraz aldatzen diren aldagaiak direnik, beraz.</li> <li>• Emantzipatzeko adinen inguruan, atzerapen txiki bat eman da azken 4 urteetan: urte t' erdi igo egin dira bai gazteek emantzipatzeko jotzen duten adinik desiragarriena, baita beraiek emantzipatzeko direla uste duten adina ere.</li> </ul>  |

#### 4. Atala: GAZTEEN OHITURA ETA JARRERAK

##### ONDORIO OROKORRAK

- Gipuzkoako 15-29 urte bitarteko gazteek astean aisialdi eta dibertsiorako batez beste 32 ordu libre dituztela erantzun dute. Etxean daudenean gazteek gustuen egiten dituzten ekintzak honako hauek dira: musika entzun, atsedean hartu, familiarekin egon, telebista ikusi... Etxetik kanpo daudenean lagunarteko harremanekin zerikusia duten ekintzak: lagunekin elkartu, neska/mutil lagunarekin irten, tabernetan ibili....
- Prentsaren irakurketa nahikoa zabaldua dago, bost gaztetik batek astean behin baino gutxiagotan irakurtzen duela badio ere. Irakurzaletasuna aldiz ez dago hain zabaldua, eta batez beste urtean 4,1 liburu besterik ez dituzte irakurtzen. Gazteen laurden batek ez du liburu bat bera ere irakurtzen, eta beste laurden batek 1-2 liburu soilik.
- Ordenadorea aldiz ohizko tresna bilakatu da; hirutik bik etxean bertan du ordenadorea eta bostetik bik astean behin behintzat erabiltzen du. Internetera konektatuta dago gazteen laurden baten ordenadorea (beraz etxean ordenadorea duten erdia baino gutxiago), eta hauetako gehienak erabili egiten dute.
- Kirola gazteen erdiak egiten du maiztasunez.
- Gazteen %44k tabakoa erretzen du maiztasunez, eta ia %40k ere maiztasunez behar baino gehiago edaten duela dio.
- Bikote eta sexu harremanei dagokienez, bost gaztetik hiruk inoiz sexu-harreman osoa izan dutela erantzuten dute, batez beste 18,5 urterekin.
- Garraiobideei buruz, gazteek maiztasunez gehien erabiltzen duten garraiobidea autoa da (hamarretik zazpi astean behin behintzat erabiltzen du), ondoren autobusa (hamarretik lauk), tren, motorra eta bizikleta.

#### 4. Atala: GAZTEEN OHITURA ETA JARRERAK

|                     |  |
|---------------------|--|
| <p><b>SEXUA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezkoek, gizonzkoek baino 2,5 ordu gutxiago dituzte aisialdi eta dibertsiorako astean, eta proportzionalki gehiago dira etxean daudenean gustukoek familiarekin egotea edo irakurtea dutenak, eta etxez kanpo daudenean lagunekin edo bikotearekin elkartzea dutenak. Gizonzkoek aldiz, proportzionalki gehiago aukeratzen dute musika entzun eta telebista ikusi -etxean daudenean- eta kirola egin edo tabernetan ibili -etxez kanpo daudenean-.</li> <li>• Prentsa gizonzkoek gehiago irakurtzen badute ere, irakurzaletasuna handiagoa da emakumezkoen artean, batez beste urtean liburu bat gehiago irakurtzen dutelarik.</li> <li>• Ordenadorea aldiz gizonzkoek maizago erabiltzen dute, bai Internet bai bestela ere.</li> <li>• Gizonzkoen jarduerarekin lotuta zenbait elementu bere horretan mantentzen dira: gizonzkoen artean gehiago dira kirola egiten dutenak, arrisku jarduerak egiten dituztenak. Eta beste batzuk aldiz inbertitu egin dira: gaur egun gehiago dira jada tabakoa maiztasunez erretzen duten emakumezkoak.</li> <li>• Sexu praktiketan ez dago alderik emakumezko eta gizonzkoen artean, ez sexu-harreman osoak izan dituztenen ehunekoetan, ezta lehenengo sexu-harreman osoak izan zuten adinean ere.</li> <li>• Garraibideen erabilerari dagokionez aldiz, proportzionalki emakumezkoek garraio publikoa (autobusa eta tren) gehiago erabiltzen dute, gizonzkoek pribatua erabiltzeko ohitura/joera dutelarik (autoa, motorra eta bizikleta).</li> </ul>  |
| <p><b>ADINA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteenek, helduagoek baino ia 2 ordu libre gehiago dituzte aisialdi eta dibertsiorako, eta proportzionalki musika entzutea, telebista ikustea, edo lagunekin elkartzea gustukoek dutenak gehiago dira. 23 urtetik gorakoek artean aldiz, gehiago dira jarduera familiarrak, irakurtea eta kirolen bat egitea gustukoek dutenak.</li> <li>• Prentsaren irakurketa eta irakurzaletasuna zabalduagoa dago 23 urtetik gorakoek artean, gazteagoen artean egunkaria astean behin baino gutxiagotan irakurtzen dutenak %25era iristen baitira.</li> <li>• 23 urtetik beharokoek artean, ordenagailua dutenak gehiago dira adin horretatik gorakoek artean baino, gero batzuen eta besteen erabilera mailan alderik ez badago ere. Internet erabiltzeko ohitura aldiz zabalduagoa dago 23 urtetik gorakoek artean.</li> <li>• Kirola egiten duten gazteen ehunekoak altuagoa da 23 urtetik gorakoek artean, baina baita erretzaile eta praktika arriskutsuak deiturikoak egiten dituzten gazteen ehunekoak ere.</li> <li>• Sexu eta bikote-harremani dagokienez, logikoa den bezala, adinak eragin handia du: 23 urtetik gorakoek artean sexu-harreman osoa izan duten gazteen proportzioak, 23 urtetik beharokoena bikoizten du. Eta 25 puntu gainetik kokatzen dira bikote-lagun egonkorrik duten edo inoiz izan duten gazteen ehunekoak.</li> <li>• Erabilitako garraibideei buruz, 23 urtetik gorakoek artean nabarmen zabalduagoa dago autoa eta motorra (garraibide pribatuak, beraz) maiztasunez erabiltzeko ohitura eta aldiz gazteagoek garraibide publikoak (autobusa, tren) eta bizikleta gehiago erabiltzen dituzte.</li> </ul> |

#### 4. Atala: GAZTEEN OHITURA ETA JARRERAK

|   |   |
|---|---|
| <p><b>INGURUNEA</b></p>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako tamaina ertaineko herrietan bizi diren gazteek dute batez beste orduren bat libre gehiago astean bere aisialdi eta dibertsiorako, ordu gutxien 10.000 biztanletik beherako herrietan bizi direnak dituztelarik.</li> <li>• Aisialdi garaiari gustukoaren dituzten jardueratan orokorrean ez dago aldaketa handirik gaztea bizi den ingurunearen arabera.</li> <li>• Prentsaren irakurketan alde handirik ez badago ere, irakurzaletasun maila apalagoa dute 10.000 biztanletik beherako herrietan bizi diren gazteak.</li> <li>• Ordenadoreak nabarmen inplantazio handiagoa du Donostiako gazteen etxeetan, eta donostiarrek, bai balio absolutuetan baita proportzionaletan ere gehiago erabiltzen dute ordenadorea beste herrietako gazteek baino. Gauza bera esan daiteke Interneteko konexioaz, donostiarren artean etxean konexioa dutenak gehiago dira.</li> <li>• Kirolaren praktika aldiz ohizkoagoa da herri txikiakiko gazteen artean.</li> <li>• Sexu eta bikote harremanei dagokienez, Donostiatik kanpoko gazteen artean altuagoa da inoiz sexu-harreman osoak eduki dituztenen proportzioa, bikote-lagun egonkorrik eduki edo inoiz eduki dutenak aldiz Donostian gehiago badira ere.</li> <li>• Garraiobideen erabilera ere inguruneak nabarmen eragiten du: 10.000 biztanletik beherako herrietako gazteen artean, ia orokortua dago autoaren erabilera; Donostiarren artean aldiz zabalduagoa dago autobus eta motorraren erabilera.</li> </ul> |
| <p><b>BILAKAERA<br/>KONPARAKETA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako gazteen ordu libreen kopurua mantendu egin da azken 4 urteetan.</li> <li>• Prentsaren irakurketa maila igo egin da gazteen artean, irakurzaletasuna (liburuak irakurtzeko ohitura) aldiz jaitsi egin delarik.</li> <li>• Kirolaren praktika zertxobait igo egin da, arrisku praktika bezala definitutako ia guztiak ere gora egin dutelarik.</li> <li>• Sexu eta bikote harremanei dagokienez, ez da aldaketarik egon, ez sexu harreman osoak izan dituztenen proportzioan, ez lehen sexu-harremana izateko adinean ere.</li> </ul>   |

## 5. Atala: GIZARTE-BALIOAK ETA ERLIJOZKOTASUNA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>ONDORIO<br/>OROKORRAK</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Askatasuna/berdintasuna binomioaren aurrean, Gipuzkoako gazteen erdiak baino gehiagok berdintasuna lehenesten du, eta beste laurden batek biek garrantzi bera dutela uste du.</li> <li>• Gehiago handi batek, momentua bizitzea/aprobetzatzea nahiago du, etorkizuneari pentsatzea eta geroa planifikatzea baino.</li> <li>• Erlijio gaietan, erdiak pasatxok era bateko edo beste sinesmen erlijiosoa du, laurdena fedegabetzat jo daitekeelarik. Praktika erlijiosoa aldez nabarmen baxuagoa da, eta oso gutxi dira elizara joateko ohitura dutenak (%5).</li> <li>• Zenbait gizarte-balioen azterketak, gazte gipuzkoarrek moral irekia dutela eta permisiboak direla erakusten ditu: ia denek norbanakoen sexu-askatasuna osoa behar duela esaten dute; gehiago zabal bat eutanasia eta abortua legezatzearen aldekoa da eta hirutik bik droga kontsumoa ere legezatzatuko luke.</li> </ul> |
| <b>SEXUA</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumezko gehiago baloratzen dute berdintasuna; gizonzkoek aldez askatasunari garrantzia gehiago ematen diote.</li> <li>• Emakumezkoen artean sinestunen ehunekoa, gizonzkoena baino 6 puntu altuagoa da. Zertxobait altuagoa da baita ere elizara doazenen proportzioa.</li> <li>• Beren permisibitate moralaz, esan emakumezkoen artean abortua legezatzearen alde azaldu direnak proportzionalki zertxobait gehiago direla, eta aldez gutxiago droga kontsumoa legezatzearen aldekoa.</li> </ul>  |
| <b>ADINA</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• 23 urtetik beherakoen artean, gehiago dira momentua bizitzea nahiago dutenak hortik gorakoen artean baino.</li> <li>• Erlijiozkotasunari dagokionez, fededun/fedegabe binomioan ez dago alderik gazteen adinaren arabera; fedegabeen barnean aldez, 23 urtetik beherakoetan ateak gehiago dira, eta Jainkoarengan sinesten dutenak aldez 23 urtetik gorakoen artean.</li> <li>• Permisibitate moralaz, esan orokorrean 23 urtetik gorakoak irekiagoak, permisiboagoak direla gazteagoak baino.</li> </ul>   |

## 5. Atala: GIZARTE-BALIOAK ETA ERLIJOZKOTASUNA

|                  |  |
|------------------|--|
| <b>INGURUNEA</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gazte donostiarrek garrantzia gehiago ematen diote berdintasunari; Donostiatik kanpokoan artean aldiz, berdintasuna bezain garrantzitsua askatasuna dela uste dutenak proportzionalki gehiago dira.</li><li>• Momentua bizitzea hobereena dela uste dutenak gehiago dira Donostiatik kanpokoan artean Donostian baino.</li><li>• Sentimendu erlijiosoan gutxi eragiten badu ere, praktika erlijiosoari dagokionez, proportzionalki donostiarren artean maiztasunez elizara joateko ohitura zabalduagoa dago.</li></ul>   |
| <b>BILAKAERA</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gaur egun Gipuzkoako gazteen erdiak baino gehiagok berdintasuna hautatu badu ere, 4 urtetan 10 puntutan jaitzi da aukera hori egin duten gazteen ehunekoa. Aldiz 8 puntuz igo da momentua bizitzea/aprobetxatzea, geroa planifikatzea baino aukera hobea dela uste dutenak.</li><li>• Erlijiozkotasun tasa jaitzi egin dela dirudi, katoliko sentitzen diren gazteen proportzioa nabarmen jaitzi delarik, ez sinestunek edo ateek gora egin dutelarik.</li><li>• Permisibitate moralaren bilakaeraz esan gora egin duela azken 4 urteetan, lehendik ere esaldiok jasotako adostasun maila nahikoa altua bazen ere.</li></ul> |

## 6. Atala: GIZARTE-HARREMANAK ETA INTEGRAZIOA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>ONDORIO<br/>OROKORRAK</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako gazteen asoziazionismo maila nahikoa adierazgarria da, erdiek pasatxok elkarte edo talderen batean behintzat parte hartzen duelarik. Gazte hauek gehien hautatzen dituzten taldeak kirol-elkartek, atseginerako-elkartek eta kultur-elkartek dira. Gainontzeko talde-motatan parte hartzen duten gazteen ehunekoa nahikoa apala da.</li> <li>• Komunitatearen bizitza politikoan, modu batean ala bestean, hamar gaztetik zortzik parte hartu du inoiz; ekintzarik zabaldiena bozkatea izan da, baina gazteen proportzio adierazgarri batek, informazio politikoak jarraitu, gai politikoak defendatu edo kalean ekintza erreibindikatiboetan parte hartu du.</li> <li>• Gipuzkoako gazteak nahikoa toleranteak direla dirudi, gazteen heren bati bizilagun modura izatea axolako balitzaio ere -"skinhead-ak, punki-ak, rockerrak edo bestelako hiri-tribu eta taldeak". Drogazaleak bizilagun izatea axolako lioke ere gazteen %30ari.</li> <li>• Gipuzkoako hamar gaztetik lau Euskadi edo Euskal Herriarekin sentitzen da identifikatuen, esparru geografikoekiko atxikimenduz ari garenean. Heren bat bere herri edo hiriarekin, eta hamarretik bat munduarekin.</li> <li>• Identifikazio maila gutxien aldiz Espainiarekin sentitzen dute, ia erdiak Espainiarekin batere identifikatuta sentitzen ez dela erantzuten duelarik.</li> </ul>   |
| <b>SEXUA</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Asoziazionismo mailari dagokionez, gizonzkoak partehartze-maila emakumezkoena baino altuagoa da orokorrean, eta desberdintasunak somatzen dira ere batzuk eta besteek hautatzen dituzten elkarte-motatan: gizonzkoen artean gehiago dira kirol elkarte batean, musika talde batean, sindikatu edo elkarte antimilitarista batean parte hartzen dutenak; emakumezkoen artean aldiz gehiago dira gizarte ekintzarako elkarreetan edo auzo elkarreetan parte hartzen dutenak.</li> <li>• Komunitatearen bizitza politikoan aldiz, emakumezkoen parte hartzea altuagoa da gizonzkoena baino. Zehazki burutu dituzten ekintzak, badirudi emakumezkoek ekintza "hotzagoetan" parte hartu dutela gehiago (bozkatu, informazio politikoak jarraitu,...) eta gizonzkoek aldiz inplikazio gehiago eskatzen dutenetan (kaleko ekintzak, intereseko gaiak jorratzen dituen talde batean parte hartu...)</li> <li>• Esparru geografikoekiko atxikimenduz, gizonzkoen artean gehiago dira Euskadi edo Euskal Herriarekin identifikatzen direnak, eta emakumezkoen artean aldiz bere herri edo hiriarekin, Gipuzkoarekin edo Espainiarekin identifikatzen direnak.</li> <li>• Gutxien identifikatzen den talde geografikoari dagokionez, aldiz, Espainiarekin batere identifikatzen ez diren gizonzkoak gehiago dira, emakumezkoen artean Europar Batasunarekin edo munduarekin batere identifikatuta sentitzen ez direnak gehiago direlarik.</li> </ul> |

## 6. Atala: GIZARTE-HARREMANAK ETA INTEGRAZIOA

|                                  |   |
|----------------------------------|---|
| <b>ADINA</b>                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Asoziazionismo maila altuagoa da 23 urtetik gorakoen artean gazteagoen artean baino. Zein elkartetan parte hartzen duten aztertzeko garaian ere alde txikiak badaude, batzuk eta besteek bizi duten momentuari lotutakoak: 23 urtekoen artean gehiago dira ikasle taldeetan daudenak; hortik gorakoen artean aldiz gehiago dira sindikatuetan, auzo elkartean, elkargo profesionaletan... daudenak.</li> <li>• 23 urtetik gorakoen artean ere komunitatearen bizitza politikoan parte hartzeko joera gehiago antzematen da.</li> <li>• Euskal Herriarekin identifikatuen sentitzen direnen gazteen ehunekoa aldiz zertxobait altuagoa da 23 urtetik beherakoen artean.</li> </ul>  |
| <b>INGURUNEA</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inguruneak eragin handia du gizarte-harremanak eta integrazioa deitu dugun atal honetan.</li> <li>• Asoziazionismo maila, gaztea bizi den udalerriaren tamainarekin –eta soziologikoki honek suposatzen duen ingurune desberdinarekin- zerikusi handia du, gaztea bizi den udalerria zenbat eta handiagoa orduan eta altuagoa baita gaztea elkarte batean egoteko probabilitatea. Ingurune batean eta bestean bizi diren gazteek hautatutako elkarte-motak ere desberdinak dira: donostiarrek kirol-taldeak aukeratzen dituzten bezala, landa-inguruneak kultur eta musika elkarrean eta “aldarrikapen” izaera duten elkarrean parte hartzen dute gehiago.</li> <li>• Esparru geografikoarekiko atxikimenduari dagokionez ere harremana dago gaztearen ingurunea eta identifikatuen sentitzen den esparru geografikoaren artean: honela udalerririk txikitakoen artean, nabarmen altuagoa da Euskadi edo Euskal Herriarekin identifikatuta sentitzen direla diotenak, eta baita ere Espainiarekin batere identifikatuta sentitzen ez direla diotenak ere.</li> </ul> |
| <b>BILAKAERA<br/>KONPARAKETA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako gazteen asoziazionismo mailak gora egin du zertxobait azken lau urteetan; proportzionalki gehien igo diren elkarteak atseginerako elkarteak, musika eta kultur elkarteak, beste herrialdeekiko laguntza edo kooperazio taldeak eta sindikatuak izan dira.</li> <li>• Esparru geografikoarekiko atxikimenduari dagokionez, nabarmen igo da Euskadi edo Euskal Herriarekin identifikatuta sentitzen direnen proportzioa, eta baita ere Espainiarekin batere identifikatuta sentitzen ez direnen proportzioa ere.</li> </ul>   |

## 7. Atala: GAZTEAK ETA POLITIKA

### ONDORIO OROKORRAK

- Gipuzkoako gazteen ia erdiak ez du bere burua ezker-eskuin ardatzean kokatu, baina kokatu diren gehienak ezkerrean kokatu dira.
- Demokraziarekiko azaltzen duten abxikimendu maila altua da, lautik hiruk demokrazia beste edozein gobernu modu baino hobea dela uste dutelarik.
- Erakundeei buruz iritzi kritikoa dute gazteek, planteatutako 13 erakundetatik "saldo" positiboa (hau da aldeko kontrako baino erantzun gehiago) bi erakundek bakarrik jaso dituzte: udalek eta sindikatuak. Kontrako iritzi gehiago jaso dituztenak Ejertzitza eta Estatuko Segurtasun Indarrak, Espainiar Estatuko Gobernu eta Parlamentua eta alderdi politikoak izan dira.
- Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak gazteria arloan egiten duten lana baloratzerakoan, esan behar da gazteen laurdenak ez duela Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egiten duena baloratzen, ezagutuko ez duelako ziur aski, eta baloratzen dutenen batez besteko puntuaketa 4,4 eta 4,6 artean kokatzen dela 3 erakundetarako.
- Bortxa izaera duten kale-manifestazioetan gazteen partehartzea gehiago zabal batek gaitzesten badu ere, bost gaztetik ia batek justifikatuta ikusten du; gutxi gora behera autogobernua edo independentzia lortzeko bortxa erabiltzen duten pertsonetik ados daudenen proportzio bera.
- Ezker/eskuin ardatzean, gazteak zenbat eta ezkertiarago azaldu orduan eta nabarmenagoa da independentzia lortzeko bortxa erabiltzen duten pertsonetik adostasuna.
- Euskal Autonomia Erkidegoak, Estatuarekiko dituen harremanak mantendu nahi dituen ala ez erabakitzeko galdeketa egitearen alde dago gazteen %84, beste %10ek erantzuten ez duelarik. 10 gaztetik ia lau independentziaren alde daude, bostetik batek gaur egungo autonomia maila nahikoa dela uste duen bitartean.
- EAEaren eta Estatuaren arteko harremana mantendu ala ez erabakitzeko galdeketa egitearen alde dauden gazteen artean, euren burua ezkertiarizat aurkezten dutenek askoz pisu nabarmenagoa dute galdeketa egitearen kontra azaltzen direnen artean baino: erreferendumaren alde daudenen artean gazte ezkertiarrek destakutzen dira.
- EAEaren autonomia maila handitzearen aurka dauden gazteen artean ikasle ez aktiboak destakutzen dira.
- 5 gaztetik ia 2k Euskal Herriaren independentziak bizi-baldintzak hobetu egingo litzukeela uste du, 5etik batek kontrakoa uste duen bitartean.

## 7. Atala: GAZTEAK ETA POLITIKA

|              |   |
|--------------|---|
| <b>SEXUA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezker eskuin ardatzean bere burua kokatzen jakin ez duten emakumezkoak gehiago dira gizonetzkoak baino, emandako erantzunetan aldaketa handirik somatzen ez bada ere.</li> <li>• Erakunde desberdinei emandako balorazioei buruz, esan emakumezkoak eta gizonetzkoak orokorrean nahikoa “ranking” antzekoa egiten badute ere, emakumezkoak onberagoak direla beren balorazioetan, gizonetzkoek balorazio kritikoagoak eskaintzen dituztelarik.</li> <li>• Bortxa izaera duten kale manifestazioetan gazteen partehartzea justifikatzen duten gizonetzkoen proportzioa, emakumezkoena baino altuagoa da.</li> <li>• Estatuarekiko EAEk duen harremana mantendu nahi duen ala ez erabakitzeko galdeketa batean hartuko luketen harreraren aurrean, emakumezkoen artean gehiago dira autonomia maila Estatu barnean handitu beharko liratekeela diotenak, eta aldiz gutxiago independentziaren aldekoak.</li> </ul>   |
| <b>ADINA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezker eskuin ardatzean bere burua kokatzen jakin ez duten 23 urtetik beherako gazte gehiago dago, 23 urtetik gorako baino. 23 urtetik gorakoen artean gehiago dira ezkerrean kokatzen direnak</li> <li>• Demokraziarekiko atxikimendu maila altuagoa azaltzen dute 23 urtetik gorakoek, gazteagoek baino.</li> <li>• Erakunde desberdinei emandako balorazioei buruz, esan orokorrean 23 urtetik beherakoek eta gorakoek nahikoa “ranking” antzekoa egiten badute ere, 23 urtetik beherakoak onberagoak direla beren balorazioetan, helduagoek balorazio kritikoagoak eskaintzen dituztelarik. Era berean, 23 urtetik gorakoak kritikoagoak dira baita ere erakundeek gazteria arloan egiten duten lana baloratzeko garaian.</li> <li>• 23 urtetik beherakoen artean gehiago justifikatzen da gazteen partehartzea bortxa-izaera duten kale manifestazioetan.</li> <li>• Erreferendum baten alde daudenak gehiago dira 23 urtetik gorakoen artean, EAEn autonomia maila Estatuaren barnean handitu beharko liratekeela diotenak eta independentziaren alde daudenak ere zertxobait gehiago direlarik.</li> </ul> |

## 7. Atala: GAZTEAK ETA POLITIKA

|                                  |   |
|----------------------------------|---|
| <b>INGURUNEA</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Orokorrean esan daiteke gaztea bizi den inguruneak eragina baduela bere jarrera politikoetan, ondorengo datuek adieraziko diguten bezala. Gaztea ezker-eskuin ardatzean kokatzeko garaian adibidez, herri txikietan gehiago dira beren burua posizionatu ez dutenak, baina baita ezkerrean kokatu direnak ere. Donostian aldiz, gehiago dira zentroan kokatu direnak</li> <li>• Erakundeen balorazioa egiteko garaian ere, gaztea zenbat eta herri txikiagoan bizi, orduan eta balorazio kritikoa egiten du. Espainiar erakundeek, jarrerarik apalena –kritikoa izanik ere- donostiarrak azaltzen dutelarik</li> <li>• Antzekoa esan daiteke gazteen partehartzea bortxa-izaera duten kale-manifestazioetan justifikatuta daudela uste duten gazteen proportzioetan: udalerrri txikietatik gazteen artean justifikatzen dituztenak gehiago dira herri handi batean edo Donostian baino.</li> <li>• Eta balizko erreferendum baten alde egongo liratekeen galderari dagokionez ere gauza bera: erreferendumaren alde daudenak %90era iristen dira herri txikietan, eta %50era independentziaren alde egingo luketenak. Aitzitik Donostian adibidez, erreferendumaren alde %80ak egiten du, eta independentziaren alde %26ak.</li> </ul> |
| <b>BILAKAERA<br/>KONPARAKETA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Orain dela lau urteko datuekin alderatuz, esan nabarmen igo dela erantzuten jakin ez duten gazteen ehunekoak, baina baita ezkerrean kokatu direnenena ere.</li> <li>• Erakundeei eskainitako balorazioaren bilakaera egiterakoan esan 1996an saldo positiboa jaso zuten bost erakundetatik bi mantendu egin direla, eta beste hiruk behera egin dutela nabarmen: komunikabideak, Ertzaintza eta Espainiar Monarkia (orain dela 4 urte Erregeaz bakarrik galdetzen zen). Eliza, Justizia eta Espainiar Parlatuaren balorazioa ere kritikoa da, eta aldiz malguagoa da alderdi politikoan, Espainiar Estatuko Gobernuaren eta Ejerzitoaren balorapena.</li> <li>• Erreferendum baten egitearen alde azaltzen den gazteen ehunekoak ere gora egin du zertxobait, eta gora egin dute baita ere independentziaren aldekoak.</li> <li>• Independentziak bizi-baldintzak hobetu egingo lituzkeela uste dutenen pisua hazi egin da: 10etik 3 izatetik 10etik ia 4 izatera pasatu da.</li> <li>• Beraz, Gipuzkoako gazteriaren artean Euskal Herriaren independentziaren aldeko bilakaera orokorra antzeman da 1996-2000 epean.</li> </ul>  |